



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko apirilaren 18a

40. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, euskararen diskurtso integratzailea eta erakargarria gizarteratzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, alor sozio-ekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko saio sistematizatuak bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Euskaltzaindiaren eskutik eta hainbat elkarterekin elkarlanean, euskararen corpusa estandarizatzeko, modernizatzeko eta normalizatzeko lanak planifikatu eta sustatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, helduen euskalduntze eta alfabetatzearen alorrean, gizartearen eta ikasleen beharretara egokitutako irakaskuntza eskaintza lantzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, etorkinen elkarrekin elkarlanean, inmigrazioaren fenomenoari modu eraginkorrean eta integratzailean aurre egiteko euskararen ezagutza bulkatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, euskara erabiltzeko gai direnen artean euskararen erabilera sustatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, euskarazko kultur produktuak eta sortzaileak nazioartean ezagutarazteko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, euskararen normalkuntzaren bidean, erdal komunitatearen inplikazioa bilatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, euskararen presentzia Interneten areagotzeko, eduki digitalak sortuz, Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, euskararen eremu osoko erakundeekin euskara bulkatzeko lankidetzeta bideratzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- Galdera, alderdi politikoez, sindikatuek eta abarrek euskararen normalkuntzarekiko duten konpromisoa areagotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, kartografian, hizkuntz paisaian eta abarretan euskararen erabilera hedatzeari bultzada emateko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, hedabideetan euskararen presentzia areagotzeko eta euskarazko hedabideak bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, euskara normalizatuaren eta kaleko euskararen artean etenik gerta ez dadin Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, euskararen presentzia mugaz gaindi ere areagotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, euskararen erabilera familia harremanetan areagotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, euskararen aldeko jarrera politiko eta soziala bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, euskararen kalitatea bermatu eta gordetzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, euskarazko kultur merkatua trinkotzeko, zabaltzeko eta normalizatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, hizkuntza politika kontuetan herri-aginteen arteko koordinazioa eta elkarlana sendotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Espainian eta nazioartean hizkuntza gutxituen sustapen-politiketan ari diren erakundeekin harremana sendotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, gune eskaldunetan euskararen etorkizuna bermatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, hizkuntza politika Nafarroako Gobernuaren baitan zehar-lerrotzat hartzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, hizkuntza politikaren arloan hausnarketa eta debatea bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, herritarrek hizkuntzarekiko duten atxikimendua sendotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, teknologia berrietan euskarazko baliabideak, tresnak eta aplikazio berriak garatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, bilakaera soziolinguistikoaren berri izateko ikerlanak bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Iruña-Jaka autobideko Ledea aldeko behin betiko trazaduraren inguruan egindako proposamenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehen-tasuna emateko aireko garraioetako publizitate instituzionalari. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, Erronkari ibarrean mediku titular bakarra dagoen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Galdera, 52225 541006 2500 3111108 kontusailaren betetze mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, euskararen diskurtso integratzailea eta erakargarria gizarteratzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskararen diskurtso integratzailea eta erakargarria gizarteratzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin

duen Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan euskararen diskurtso integratzailea eta erakargarria lantzeko eta sistematikoki gizarteratzeko. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak, hala legegintzaldi honetan nola aurrekoetan, euskararen gaineko diskurtso integratzailea izan du; betiere abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen esparruaren barruan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin duen Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Legegintzaldi honetan, Nafarroako Gobernua Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua aplikatzen ari da.

Bereziki adierazgarriak dira udalei ematen zaizkien dirulaguntzak udal euskara teknikariak

kontratatzeko dakartzen langile gastuak finantzatzeko, udal langileak euskalduntzeko eta udal esparruan euskararen erabilpena sustatzeko. Halaber, nabarmentzekoak dira Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari langileak euskaraz trebatzeko programak.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, alor sozio-ekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko saio sistematizatuak bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du alor sozio-ekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko saio sistematizatuak bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin

duen Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan, alor sozio-ekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko saio sistematizatuak bultzatzeko, erakunde, elkarte, sindikatu eta abarren inplikazio eta parte hartzearen bidez. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak euskararen erabilera sustatzen du Nafarroako hainbat udal eta toki entitatekin sinatutako itunen barruan egindako programa eta kanpainak garatuz, baita publiko osoari zuzendutako erakusketa eta mota guztietako argitalpenen (liburuak, CDak, DVDak, kartelak,...) bidez ere.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Euskaltzaindiaren eskutik eta hainbat elkarterekin elkarlanean, euskararen corpora estandarizatzeko, modernizatzeko eta normalizatzeko lanak planifikatu eta sustatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Euskaltzaindiaren eskutik eta hainbat elkarterekin elkarlanean, euskararen corpora estandarizatzeko, modernizatzeko eta normalizatzeko lanak planifikatu eta sustatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Euskaltzaindia eta beste elkarte batzuekiko elkarlanari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak sinatutako hitzarmena dela-eta, bi erakundeak euskararen aldeko elkarlanean aritu dira, eta ondoko jarduerak garatu dituzte:

2003. urtean:

1. Izaera bereziko jarduerak:

a) Nafarroako hiru herriko grabazioak euskarri informatikoan jarri eta ematea; grabaketa horiek Euskararen Herri Hizkeren Atlasara egiteko bildu ziren, betiere, informazioaren pribatutasuna errespetatuz.

b) Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren lehen liburukia bereiz argitaratzea ahalbidetuko duen programa informatikoa berritzea.

c) Nafarroako euskalki bati buruzko gramatika bat ("Baztango Euskalkiaren Gramatika") prestatzeko lanak hastea

d) Nafarroako euskalkiak hizkuntzalaritzaren aldetik ikertzeko plan bati buruzko txostena egitea.

e) Bi liburu argitaratzea bi erakundeen irizpide komunaren arabera aukeratuta.

– Jean Pierre Arbelbide: ERLISIONEA. *Euskal Herriari dohazkon egiazko beharrenek*. Lille: Jaun Desclée de Brouwer - 1890.

– José Luis Erdozia Mauleon: *Sakanako hiztegi dialektologikoa*.

f) "Nafarroako euskalkiak" gaiari buruzko jardunaldiak prestatzea.

Jardunaldiak urriaren 22an eta 23an egin ziren. Hona hizlariak:

– Iñaki Camino, "Nafarroako euskalkiak. Abiaturu teoriko-metodologikoa".

– Gotzon Aurrekoetxea, "Nafarroa kartografia linguistikoa".

– Juan Luis Goikoetxea, "Etxeko euskara eta euskara batua Nafarroako eskoletan".

– Patxi Iñigo, "Euskara batua eta euskalkiak Nafarroako hezkuntzan: inkesta baten emaitzak, kezka eta ondorioak".

– Paxkual Rekalde, "Euskara batua eta euskalkiak Nafarroako administrazioan: inkesta baten emaitzak, kezka eta ondorioak".

Egindako balorazioa oso positiboa izan zen, hala hitzaldien edukiarengatik nola gaian interesaturiko entzule ugari joan zelako. Halaber, prentsaren aldetik jarraipen handia egin zitzaioela egiazta-tu zen.

g) Elkarrekin adosten diren guztiak.

2004. urtean:

1. Izaera bereziko jarduerak:

– Euskararen Herri Hizkeren Atlasara. Programa informatikoa.

– Euskararen Herri Hizkeren Atlasara. Hainbat herritako grabaketak.

2004. urtean ondoko herrietako grabaketak egin ziren: Ezkurra, Suarbe eta Zugarramurdi.

– Baztango gramatika.

– Argitalpenak.

1966tik 1973ra bitartean José María Satrustegi jaunak *Príncipe de Viana* aldizkarian argitaratutako artikuluak.

– J.M. Satrustegiren materiala katalogatzea.

Euskaltzaindiak, J.M. Satrustegiren oinordekoekin adostasuna lortu eta gero, artxibo guztiak Bilboko egoitzara eraman zituen eta han hasi dituzte egoki iritzi diren lanak. Dagoen materialaren sailkapena eta digitalizazioa Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak sinatutako hitzarmenaren barruan egin zen; hitzarmenak bi urteko iraupena izan zuen; hain zuzen, 2004. urtean hasi eta 2005. urtera arte. Euskaltzaindiko liburutegiko arduradunek, artxiboen bolumena kontuan izanik, zeregin horietan laguntzeko bekadun bat kontratatzeari egoki iritzi zioten.

– Euskarari buruzko jardunaldiak:

Hedabideetan egiten den euskalkien erabilerari buruzko jardunaldiek, ekainean egindakoek, balorazio positiboa izan zuten.

Euskaltzaindiak 2003. urteko jardunaldietan izandako ekarpen guztiak bilduta ditu. Euskera aldizkari barruko separata batean argitaratzea proposatu zen.

– A eta D irakaskuntza-ereduetako curriculumari buruzko azterlana.

Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuari A eta D irakaskuntza-ereduetako curriculumari buruzko azterlan bat eman zion.

2. Euskaltzaindiak garatzen dituen izaera orokorreko bestelako jarduerak, aurreko jardueren euskarri direnak.

Bi erakundeek sinatutako hitzarmenaren eranskineko puntu hau –"Euskaltzaindiak garatzen dituen izaera orokorreko bestelako jarduerak, aurreko jardueren euskarri direnak"– garatzeko, Euskaltzaindiak txosten bat eman dio Nafarroako Gobernuari "Euskaltzaindiaren proiektuen errendimenduari eta batzordeek 2004 lehen seihilekoan egindako lanei buruzko txostena" izenekoak.

2005. urtean:

1. Izaera bereziko jarduerak:

– Euskararen Herri Hizkeren Atlas. Hainbat herritako grabaketak.

2005. urtean ondoko herrietako grabaketak egin ziren: Aniz, Dorrao eta Etxaleku.

– J.M. Satrustegiren materiala katalogatzea.

2004. urtean hasitako lanak 2005ean amaitu ziren.

– Argitalpenak.

Baztango Mintzoa: Gramatika eta Hiztegia.

Jose Maria Satrustegi: ereile eta lekuko.

– Testu batzuk digitalizatzea.

"Príncipe de Viana" aldizkariko euskarazko gehigarriak digitalizatzeko lanak.

– Euskarari buruzko jardunaldiak:

Euskararen ahozko tradizioari buruzko jardunaldiek, irailean egindakoek, balorazio positiboa izan zuten.

Euskaltzaindiak jardunaldi horietan egindako ponentzia guztiak bildu ditu. Euskera aldizkari barruko separata batean argitaratuko dira.

– Corpus Onomastikoa.

2005. urtean zenbait lan egin da, eta Euskaltzaindiak horien berri zehatza ematen dio Nafarroako Gobernuari.

2. Euskaltzaindiak garatzen dituen izaera orokorreko bestelako jarduerak, aurreko jardueren euskarri direnak.

Bi erakundeek sinatutako hitzarmenaren eranskineko puntu hau –"Euskaltzaindiak garatzen dituen izaera orokorreko bestelako jarduerak, aurreko jardueren euskarri direnak"– garatzeko, Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuari emateko txostena "Euskaltzaindiaren proiektuen errendimenduari eta batzordeek 2005 lehen seihilekoan egindako lanei buruzko txostena" izenekoak bukatu zuten.

2006. urtean:

– Nafarroako hiru herriko grabazioak euskarri informatikoan jarri eta ematea; grabaketa horiek Euskararen Herri Hizkeren Atlas egiteko bildu ziren, betiere, informazioaren pribatutasuna errespetatuz.

Nafarroako ondoko herrietako grabaketak euskarri informatikoan jartzea: Etxarri (Larraun), Ode-ritz eta Sunbilla.

– Nafarroako Gobernuak ikerketa linguistikorako egiten dituen laguntza-deialdietako lanei buruz informatzea.

2004. urteko ikerketa linguistikorako laguntza-deialdiko bi lanari buruzko txostenak egitea: *Orreaga Ibarren Erroibarko eta Esteribarko lexiko bilduma eta Edu Zelaietaren Baztan-Bidasoa hizkeren azterketa dialektologikoa.*

– Argitalpenak.

Aurreko txostenak aldekoak badira, arestian aipatutako bi lanak argitaratzea.

Halaber, euskaltzain nafarrek *Principe de Viana* aldizkarian egindako ekarpenak jasoko dituen liburu bat argitaratuko da.

– Jardunaldiak.

Euskarazko terminologia juridiko-administrati-boari buruzko ikerketa eta gai horri buruzko jardunaldiak egiteko aukera.

– Testu batzuk digitalizatzea.

Saroihandyren fitxak digitalizatzea Pirinioetako hizkuntzei buruzko materiala biltzeko eta 2007an edo 2008an Nafarroan gai horri buruzko jardunaldiak antolatzeke asmoz. Materiala Bordeleko unibertsitatean dago eta uztailean eta abuztuan digitalizatuko da.

Jose Maria Jimeno Juríoren onomastika fitxak digitalizatzea.

– Corpus Onomastikoa.

2005ean hasitako lanekin jarraituko du.

– Elkarrekin adosten diren guztiak.

UZEI:

Nafarroako Gobernuak eta UZEIk –Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea–, 2000ko maiatzaren 2an, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten euskararen lexikoa gaurkotzera zuzendutako ikerketa sustatzeko asmoz.

2003. urtean:

Terminologia bankua osatzea eta eguneratzea:

– Beste izen bat ematea.

– Kontsultaren interfazea aldatzea.

– UZEIk Nafarroako Gobernuarentzat egindako hiztegi berriak sartzea.

– Terminologia bankua eguneratzea Euskaltzaindiak hartutako erabakiekin.

Terminologia bankua Nafarroako Gobernuaren intraneten bidez kontsultatu ahal izatea:

– kontsultarako aplikazioa egitea.

– Aplikazioa eta dokumentazioa bidaltzea.

– Nafarroako Gobernuaren departamentuen zerrendak eta hiztegiak sartzea ahalbidetzea.

Hiru hilean behin terminologia bankuaren bertsio eguneratua eskaintzea:

– Hiru hilean behin bertsio eguneratua CD-ROMean bidaltzea Intraneten jartzeko.

Unean uneko kontsultei erantzuna ematea eta sistematizatzea:

– telefonoz, faxez edo posta elektronikoz egindako unean uneko kontsultei erantzuna emateko zerbitzu bat eskainiko da eta aipatu kontsultak sistematizatuko dira.

Hizkuntza-dokumentazioko datu-baseak erabiltzen uztea:

– UZEIren hizkuntza-dokumentazioko datu-baseak arlo horrekin lotura duten entitate eta ikertzaileen eskura jartzea; betiere, departamentuaren baimena badute.

Hautatutako testuak Internet edo Intraneten bidez erabili ahal izateko proiektu bat proposatzea.

Nafarroako Gobernuari eta udalei prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea.

2004. urtean:

Terminologia bankua eguneratzea:

– UZEIk Nafarroako Gobernuarentzat egindako hiztegi berriak sartzea.

– Terminologia bankua eguneratzea Euskaltzaindiak hartutako erabakiekin.

Terminologia bankua Nafarroako Gobernuaren intraneten bidez kontsultatu ahal izatea:

– kontsultarako aplikazioa egitea.

– Aplikazioa eta dokumentazioa bidaltzea.

– Nafarroako Gobernuaren departamentuen zerrendak eta hiztegiak sartzea ahalbidetzea.

Hiru hilabetetan behin terminologia bankuaren bertsio eguneratua eskaintzea:

– Hiru hilean behin bertsio eguneratua CD-ROMean bidaltzea Intraneten jartzeko.

Unean uneko kontsultei erantzuna ematea eta sistematizatzea:

– telefonoz, faxez edo posta elektronikoz egindako unean uneko kontsultei erantzuna emateko zerbitzu bat eskainiko da eta aipatu kontsultak sistematizatuko dira.

Dokumentazio linguistikoko datu-baseak erabiltzen uztea:

– UZEIren hizkuntza-dokumentazioko datu-baseak arlo horrekin lotura duten entitate eta ikertzaileen eskura jartzea; betiere, departamentuaren baimena badute.

Ondoko hiztegien edukiaren analisisa, hiztegiak digitalizatzeko datu-base bat diseinatzea eta hiztegietatik informazioa ateratzeko sistema bat egiteko proposamena:

– Erronkariko Euskararen hiztegia. Gaztelania - erronkaria

– Baztango Hiztegia

– Sakanako Hiztegi Dialektologikoa

– Zaraitzuko Hiztegia. Zaraitzuera-Euskara Batua. Euskara Batua-Zaraitzuera

– Izarbeibarko Hiztegia Izarbeibarko euskara – Euskara batua / Euskara batua-

Izarbeibarko euskara.

– Bertsotan leitzeraz. Hiztegiak

Nafarroako Gobernuari eta udalei prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, helduen euskalduntze eta alfabetatzearen alorrean, gizartearen eta ikasleen beharretara egokitutako irakaskuntza eskaintza lantzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du helduen euskalduntze eta alfabetatzearen alorrean, gizartearen eta ikasleen beharretara egokitutako irakaskuntza eskaintza lantzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du helduak euskalduntzeko eta alfabetizatze eskaintzari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

ESKAINZA PUBLIKOA:

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak helduentzako euskara ikastaroak ondoko ikastetxeetan –azken ikasturtean 3.806 ikasle matrikulatu dira– eskaintzen ditu:

“ZUBIARTE EUSKALTEGI PUBLIKOA”

Euskara ikastaroak mailaka ematen ditu Nafarroako Gobernuko Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) lortu arte eta gainditutako mailak egiaztatzen ditu.

Hezkuntza Departamentuak urtero egiten du publizitate kanpaina bat ikastetxeko matrikulazioa bultzatzeko; 2006an, kanpaina horren kostua 10.515,60 eurokoa izan da eta honakoa egin da:

– Irargariak jartzea egunkarietan (Diario de Navarra eta Diario de Noticias) eta aldizkarietan (Villava-Atarrabia, Ze Berri, Nabarra, Orbela, Barrios de Iruña -Mendiberri, El Periódico Universitario, Ttipi-ttapa, Guaixe, Ibaialde, Aldapa eta Auzolan).

– Irargariak irratiaren (SER, R. Pamplona FM-Los 40, Kiss FM, Euskalerra Irratia eta Xorroxin Irratia).

– Eskuorriak/diptikoak, kartelak eta sakelako egutegiak argitaratzea ondoren Iruñerrian banatzeko eta paratzeko.

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK

Nafarroako hiru hizkuntza eskola ofizialetan euskara klaseak ematen dira. 2005-2006 ikasturtean, euskaraz, 672 ikasle matrikulatu dira Iruñean, 71 Tuteran eta 2.078 Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean.

ESPETXEA.

Hezkuntza Departamentuak kontratatutako irakasle batek euskara klaseak– astean 18 ordu ematen ditu espetxean.

Programa horren barruan, eskolak emateaz gain euskarazko kultur ekitaldiak egiten dira; azken ikasturtean honakoak egin dira: bertsoak eta diapositiba-emanaldia, musika tradizionalako kontzertu bat trikitixarekin eta beste bat txalaparta eta trikitixarekin. Halaber, bi hilabetez, astean 4,5 orduko egurra tailatzeko ikastaro bat antolatu da, hori ere euskaraz.

HELDUAK EUSKALDUNTZEKO ZENTRO PRIBATUAK

Zentro horiek dirulaguntza jasotzen dute; 2003tik 2006ra bitarte 1.482.254 euroko dirulaguntza jaso dute. Azken urtean matrikulatutako ikasleak 1.728 izan dira.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, etorkinen elkarteekin elkarlanean, inmigrazioaren fenomenoari modu eraginkorrean eta integratzailean aurre egiteko euskararen ezagutza bulkatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du etorkinen elkarteekin elkarlanean, inmigrazioaren fenomenoari modu eraginkorrean eta integratzailean aurre egiteko euskararen ezagutza bulkatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin

den etorkinen elkarteekin elkarlanean kolektibo horretan euskararen ezagutza bultzatzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak "ikasle etorkinentzako informazio-gida" bat argitaratu du; gida ikastetxe publiko eta itunduetan, guraso elkarteetan eta etorkin kopuru handiena duten udalerrietan banatu da. Gida hori gaztelaniaz, arabieraz, ingelesez, euskaraz, errusieraz eta bulgariaraz argitaratu da; asmoa da etorkinek Nafarroako hezkuntza sistemak beren haurrentzat eskaintzen dituen aukeren berri izatea eta zein ikastetxe motatan eta hizkuntza-eredutan eskolatu nahi dituzten askatasunez erabaki ahal izatea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, euskara erabiltzeko gai direnen artean euskararen erabilera sustatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskara erabiltzeko gai direnen artean euskararen erabilera sustatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den euskaldunen hizkuntzarekiko inplikazioa areagotzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuaren helburua da, zenbait programaren bidez, euskara euskaldunaren bizimoduaren alderdi guztietan egotea, eskolatik hasita hedabideetaraino, bai eta hizkuntza horretan egiten diren kultur ekitaldietan ere.

Nafarroako Gobernuak ondoko programak ezarrita ditu euskararen presentzia Nafarroako bizitza kultural eta sozialean babesteko:

1. Zoko Zinea.

Zinema herri txikietan. Batez beste 1.000 bizilagun baino gutxiagoko 10 herritara heldu da. Horietan guztietan, emanaldiari buruzko mintzaldi bat antolatu zen.

2. Erakusketak.

Euskaraz egindako beste ekitaldi kultural bat erakusketak dira; horiek hainbat urtetan antolatu dira eta egin diren herrietan oso harrera ona izan dute. Erakusketa ibiltariak dira eta, gutxienez bi

urtez, Nafarroako zenbait herritan paratzen dira. Ondoko erakusketa hauek egin dira:

a. "El siglo de la aviación/Hegazkintzaren mendea": Mendabia, Los Arcos, Bera, Zangoza, Burlata, Lekunberri, Castejón eta Altsasu.

b. "El mar, principio de vida/Itsasoa, biziaren jatorria": Lizarra, Tafalla, Elizondo, Antsoain eta Agoitz.

c. "El vascuence en Navarra: sus dialectos - Nafarroako euskalkiak": 2004ko abenduaren 30ean inauguratu zen eta Iruñeko Baluartean 2005eko urtarrilaren 27 arte egon zen. Geroztik, 2005ean eta 2006an Nafarroako zenbait herritara eraman zen.

3. Ze Berri?

Unibertsitateetako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak, 2004. urtera urte, Ze Berri aldizkariaren gastu osoaren % 45 bere gain hartu zuen; euskaldunen artean erabilerearen sustapena ahaztu gabe, aldizkariaren helburua da euskararen eta Nafarroako kultura eta historia berrienaren berri ematea, erdaldunen artean euskarari buruzko balorazio positibo bat sustatuz. Data horretatik aurrera, aldizkari horrek dirulaguntza jasotzen du hedabide sozialei laguntza emateko deialdiaren bidez.

Bestalde, Nafarroako Gobernua ahalegin handia egiten ari da haurrek eta gazteek euskara eta euskaraz ikas dezaten. Horrela, gaur egun, 17.547 ikasle euskara ikasten ari dira A eremuan eta beste 20.083 ikasle euskaraz ikasten ari dira D eremuan. Aipamen berezia behar dute eremu ez-euskalduneko lau ikastolek, aurten baimena jaso dutelako eta haiekin itun bat sinatu delako.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, euskarazko kultur produktuak eta sortzaileak nazioartean ezagutarazteko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskarazko kultur produktuak eta sortzaileak nazioartean ezagutarazteko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den euskarazko kultur proiektuak eta produktu horien sortzaileak nazioartean ezagutzera emateko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak euskara sustatu du gure mugetatik kanpo Europako hizkuntza azoka garrantzitsuenetan hizkuntza horren presentzia bultzatuz.

Nafarroako euskararen sustapena gure mugeetatik kanpo bi neurri paraleloren bidez gauzatu da. Alde batetik, Europako arlo horretako bi ekitaldi garrantzitsuenetan parte-hartzea ziurtatuz; hain zuzen, Expolangues Paris eta Expolingua Berlin, urtero bi hiri horietan egiten direnak. Eta bestaldetik, ziurtatu da presentzia hori komunitate bereizi bati dagokiona izan dadin, aurreko ekitaldietan ez bezala.

Nazioartera ateratze horietan ez dira ahazten Nafarroako euskarari buruz ematen eta zabaltzen den informazioaren hartzzaileak izan litezkeenak, bisitatzen diren lekuetan bizi direnak.

Pariseko Expolangues azoka hasi baino lehen, Nafarroako Gobernuak azokan izan behar duen

parte-hartzeari buruzko informazioa bidaltzen da Pariseko euskal etxeetara eta nafar etxeetara, eta erakustokia bisitatzeko gonbidapena egiten zaie.

Euskara ikastetxe eta unibertsitateetan zabaltzeari dagokionez, haiei ere, urtero, gonbidapena egiten zaie Nafarroako Gobernuaren erakustokira hurbil daitezen Nafarroako euskararekin zerikusia duen guztia erakusteko eta informazioa emateko; halaber, gonbidapena egiten zaie Nafarroako Gobernuak euskararen inguruan argitaratutako produktu berriak jasotzeko interesa duten guztiei.

Nafarroako Gobernuaren erakustokira hurbiltzen den eta euskarari buruzko informazio espezifikoren bila datorren publikoa batez ere, unibertsitarioa da, hala irakasleak nola ikasleak, eta guztiei arreta eskaintzen zaie eta eskatutako materiala ematen zaie.

Horretaz gain, erakustokia bisitatu duen publikoak postaz edo posta elektronikoz material linguistiko eta soziolinguistiko eskatzeko egindako eskari guztiei erantzuna ematen zaie.

Nabarmendu behar da, hala Parisen nola Berlinen Nafarroako Euskararen Fonoteka aurkeztu zela, euskararen linguistikan, filologian eta irakaskuntzan interesa duen publiko baten aurrean.

Berezko argitalpenak eskuz eman edo hizkuntza-politika kudeatzen duten Espainiako erakundeetara bidali ohi dira: Galiziako Xuntara, Kataluniako Generalitatera, Eusko Jaurjaritzara, Balearretara eta Valentziara; Cervantes Institutuaren Europako egoitzetara eta kanpoko zenbait unibertsitateetara, besteak beste, Frankfurtuko Unibertsitate (Alemania), Renoko Nevadako Unibertsitate (AEB) eta Quebeceko Laval Unibertsitate (Kanada).

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñan, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, euskararen normalkuntzaren bidean, erdal komunitatearen inplikazioa bilatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskararen normalkuntzaren bidean, erdal komunitatearen inplikazioa bilatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den erdal komunitatearen inplikazioa bilatzeko euskararen normalkuntzan. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak jarduera asko egiten du erdaldunei euskarari buruzko normaltasunezko mezua eta balorazio kulturala helarazteko; helburua da hizkuntza hori despolitizatzea, erdaldunek ere beren gauza bat bezala balora dezaten eta hizkuntza dela-eta bereizkeriarik sor ez dadin.

Dibulgaziozko eta soziolinguistikako obrak argitaratzeak euskarari merezi duen normaltasuna eman dio; ahaleginak egin dira hizkuntza gaietan eta dibulgaziorako gaietan. Hauexek dauzkagu:

1. 2004. urtean:

- a. Hegonafarrera, Iñaki Camino.
- b. Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara, Estibalitz Montoya.
- c. 2003ko Nafarroako euskararen azterketa soziolinguistikoa.
- d. Vascuence y Romance: Ebro-Garona, un espacio de comunicación. Zenbait egile.
- e. Etxearen lexikoaren CDa.
- f. Malerrekako ahozko tradizioa.
- g. Esnegintza.
- h. Nafarroa Behereko herri izendegia, Patxi Salaberri

2. 2005. urtean:

- a. Malerreka solasean. Liburua eta DVDa.
- b. Esnea:Prozesua eta ohiturak. Liburua, CDa eta horma-irudiak.
- c. Baztango ahozko tradizioa.

3. 2006. urtean:

- a. Euskaltzaindiarekin izenpetu zen hitzarmenean jasotako bi obrak argitaratzea:
 - Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko, Andres Iñigorena.
 - Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia, Pello Salabururena.

Urtero, euskarazko edukiak dituzten gaztelaniazko hedabideek dirulaguntzak jasotzen dituzte deialdi baten bitartez:

GAZTELANIAZKO HEDABIDEI EMANDAKO LAGUNTZAK.

Irratiak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Navarra de Radio	35.498,22	3.055,69

Egunkari eta aldizkariak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Ibaialde	13.987,62	1.487,32
Aldapa	12.548,88	1.487,32
Txantrea-Auzolan	12.813,84	1.487,32
Orbela	6.640,34	1.189,86
La Merindad	886,78	620,75
E.G.N.	1.234,44	864,11
La Verdad	31.419,00	6.011,06
Zeroa Multimedia	147.493,83	11.106,36
Diario de Navarra	42.997,80	13.505,19
Mendixut	7.118,87	4.983,21

Telebistak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Canal 6	6.643,00	4.650,10
Canal 4	216.074,00	9.657,87

Egunkari eta aldizkariak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
ZEROA MULTIMEDIA Diario de Noticias	308.040,92	13.739,35
DIARIO DE NAVARRA, S.A. Diario de Navarra	154.522,00	17.779,70
EDICIONES VIVIR PAMPLONA S.L.	6.169,32	4.318,52
ALDIZKARI S.L. Txantrea Auzolan	8.711,06	4.922,56
ALDIZKARI S.L. Orbela	6.098,64	4.269,05
ALDIZKARI S.L. Ibaialde	11.208,67	4.827,83
ALDIZKARI S.L. Aldapa	9.075,47	4.907,76
MERINDAD KULTUR ELKARTEA La Voz de la Merindad	490,09	343,04
IRUÑEKO ARTZAPEZPIKUTZA La Verdad	34.716,53	4.899,89
LABINAO MOSO, Rita eta MADDOZ IBAÑEZ, Maite Mendixut	5.456,55	3.819,59
Guztira	544.489,25	63.827,29

Telebistak eta irratiak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Canal 6	11.000,00	7.700,00
Guztira	11.000,00	7.700,00

2005. urtean:

Idatzizko komunikabideak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
ALDIZKARI S.L. Txantrea Auzolan	14.317,00	4.911,53
ALDIZKARI S.L. Orbela	4.485,00	3.139,19
ALDIZKARI S.L. Ibaialde	11.943,00	4.883,14
ALDIZKARI S.L. Aldapa	14.220,00	4.939,92
IRUÑEKO ARTZAPEZPIKUTZA La Verdad	32.621,00	7.551,84
LABINAO MOSO, Rita eta MADDOZ IBAÑEZ, Maite Mendixut	8.499,00	5.949,06
UHARTE ETA ESTERIBARKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Ze Berri	25.142,00	16.750,32
Guztira	111.227,00	48.125,00

Idatzizko komunikabideak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
ALDIZKARI S.L. Txantrea Auzolan	12.850,00	2.716,98
ALDIZKARI S.L. Orbela	7.489,00	1.902,50
ALDIZKARI S.L. Ibaialde	11.987,00	2.716,98
ALDIZKARI S.L. Aldapa	12.624,00	2.729,51
ALDIZKARI S.L. Ostoki	11.978,00	2.704,46
IRUÑEKO ARTZAPEZPIKUTZA La Verdad	18.840,00	5.350,82
LABIANO MOSO, Rita eta MADOZ IBAÑEZ, Maite Mendixut	8.321,00	3.269,18
UHARTE ETA ESTERIBARKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA Ze Berri	56.491,00	9.795,01
MERINDAD KULTUR ELKARTEA Tafallako merindadea	6.087,00	3.319,58
DIARIO DE NAVARRA, S.A. Diario de Navarra	163.282,00	10.594,41
EDITORIAL PÁGINA CERO NORTE S.L. ADN Vivir Pamplona	8.084,00	5.388,70
SAIOA S.L KOMUNIKAZIO- TAILERRA Vivir Barañain-Barrios de Iruña	5.255,00	1.273,90
EUROCAMBUS KULTUR ELKARTEA Periodico Universitario	9.936,00	594,57
ZEROA MULTIMEDIA S.A. Diario de Noticias	325.939,00	7.643,39
Guztira	659.163,00	60.000,00

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, euskararen presentzia Interneten areagotzeko, eduki digitalak sortuz, Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskararen presentzia Interneten areagotzeko, eduki digitalak sortuz, Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den euskararen presentzia areagotzeko Interneten, eduki digitalak sortuz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Legegintzaldi honetan, Nafarroako Gobernuak nabarmen handitu du euskararen presentzia Interneten, ez bakarrik eduki instituzionalen aurkezpenaren bidez, baita albisteak eta edukiak era digitalean emateko Internet erabiltzen duten Nafarroa hedabide sozialen proiektu guztien babesaren bidez ere.

Hori dela-eta, euskarazko eduki digital instituzional ugari edo hizkuntzarekin lotutako gaiak ondoko web guneetan kontsulta daitezke:

Hezkuntza Departamentua.

["http://www.pnte.cfnavarra.es"](http://www.pnte.cfnavarra.es)

Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa

["http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/index.htm"](http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/index.htm)

Zubiarte Euskaltegia

["http://www.pnte.cfnavarra.es/zubiarte/"](http://www.pnte.cfnavarra.es/zubiarte/)

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia:

["http://www.pnte.cfnavarra.es/dgupl"](http://www.pnte.cfnavarra.es/dgupl)

Nafarroako euskararen fonoteka:

["http://www.fonoteka.com"](http://www.fonoteka.com)

Nafarroako toponimia:

["http://toponimianavarra.tracasa.es"](http://toponimianavarra.tracasa.es)

Nafarroako Gobernuaren ataria; aldatzen ari da atarian agertzen den informazioa gaztelaniaz eta euskaraz gain ingelesez eta frantsesez ere kontsultatu ahal izateko.

["http://www.cfnavarra.es/"](http://www.cfnavarra.es/)

Nafarroako Aldizkari Ofiziala:

["http://www.cfnavarra.es/bon/"](http://www.cfnavarra.es/bon/)

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua

<http://www.inapidiomas.net/newspage.php?module=news&link=nnvav&page=214&t=480>

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, euskararen eremu osoko erakundeekin euskara bulkatzeko lankidetzaz bideratzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskararen eremu osoko erakundeekin euskara bulkatzeko lankidetzaz bideratzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskararen eremu

osoko erakundeekiko elkarlanari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeekin, hala nola Euskaltzaindiarekin edo Eusko Ikaskuntzarekin, bi erakunde garrantzitsu aipatzearen, sinatu dituen akordio eta hitzarmenak aski ezagunak dira eta beste edozer ekintza baino lagungarriagoak dira euskararen aldeko lan komuna ahalbidetze aldera; betiere, jakina, erakunde horiek Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak askatasunez eta demokratikoki hartutako erabakiak errespetatzen dituzten bitartean.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, alderdi politikoek, sindikatuek eta abarrek euskararen normalkuntzarekiko duten konpromisoa areagotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du alderdi politikoek, sindikatuek eta abarrek euskararen normalkuntzarekiko duten konpromisoa areagotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozial eta ekonomikoek euskararen normalkuntzarekiko duten konpromisoa areagotzen saiatzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

2004an, Nafarroako Parlamentuak eskatuta, Hizkuntzari buruzko Ponentzia bat onesteko izapideak hasi ziren; helburua zen Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren garapena aztertzea alderdi desberdinak kontuan harturik.

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuko langileen bitartez, bere ekarpenak egin zituen aipatu ponentzian.

Hizkuntza Politika aztertzeke Ponentziaren garapena

Nafarroako Parlamentuan 2004ko martxoaren 24an eginiko Osoko Bilkuran, eta Nafarroako Gobernuaren sostengu osoarekin, hizkuntza politikaren garapena aztertzeke ponentzia bat eratzea proposatzen da.

Ponentziaren lanaren xedea izanen da euskarak honako esparruetan duen egoera aztertzea:

– Administrazio publikoei euskaraz zuzentzea bere borondatez erabakitzen duen herritarrari ematen zaion zerbitzua.

– Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan ikasketak euskaraz egiteko aukera, lurralde guztian eta borondatezkotasun-irizpideen arabera, bermatzeko aplikatu beharreko neurriak.

– Nafarroan euskaraz emititzen duten komunikabideen presentzia legezkoa izatea bermatzeko aplikatu behar diren neurriak.

– Nafarroak berezko dituen bi hizkuntzak Nafarroako Gobernuaren administrazio birtualean erabiltzea bermatzeko aplikatu behar diren neurriak.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskaraz ikasteko aukera bermatzeko aplikatu behar diren neurriak.

Une horretan eztabaida bat abiatu zen parlamentu-talde, aditu, kanpoko eragile eta hizkuntzei lotutako hainbat organismoren artean.

Hasiera batean, azken txostena aurkezteko epea hiru hilekoa izan arren, epea luzatu egin zen eta Nafarroako Parlamentuak urte bat beranduago eman zuen bukatutzat hizkuntzari buruzko ponentzia.

PSNk aurkeztu zuen azken txostenak ez zuen beharrezkotzat jotzen euskarari buruzko legea aldatzea, baizik eta Iruñerriko zonifikazioa egokitztea; PSNk eta CDNk aldeko botoa eman zuten, UPN, EA eta PNV aurka azaldu ziren eta Aralarrek ponentzia utzi zuen bozkatu gabe.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, kartografian, hizkuntz paisaian eta abarretan euskararen erabilera hedatzeari bultzada emateko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du kartografian, hizkuntz paisaian eta abarretan euskararen erabilera hedatzeari bultzada emateko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskararen erabilera kartografian, bide-seinaletan eta hizkuntz paisaian bultzatzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Legegintzaldi honetan, Nafarroako Toponimiaren arloko gai hauetan aritu gara:

– Erakunde publikoei (Lurralde Aberastasunaren Kartografia Atala, udalak) eta partikularrei Nafarroako Toponimia ofizialeko gaietan aholkularitza ematea.

– Nafarroako Toponimiari buruzko datu-basea mantentzea; orain arte lana bideratu da toponimo

batzuen kokapen kartografikoan atzemandako hut-suneak zuzentzera.

– Nafarroako toponimia ofizial handi eta txikiari egokitzeari buruzko aholkularitza; toponimia hori Espainiako Sustapen Ministerioko Institutu Geografiko Nazionalaren izendegi geografiko laburrean sarturik dago.

– Nafarroako Gobernuaren 2005eko urriaren 24ko erabakia; horren bidez, Orkoien udalerrri horretako izen ofizialtzat jo zen.

– Abuztuaren 16ko 55/2006 Foru Dekretua; horren bidez, ofizialtzat jotzen dira ondoko udalerrietako euskal izenak: Espartza Zaraitzu, Otsagabia, Orontze, Urzainki eta Deierri.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, hedabideetan euskararen presentzia areagotzeko eta euskarazko hedabideak bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du hedabideetan euskararen presentzia areagotzeko eta euskarazko hedabideak bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den hedabideetan euskararen presentzia areagotzeko eta euskarazko hedabideak bultzatzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Euskara garatzeko neurrien barruan hedabide sozialei euskara erabiltzeagatik laguntzak emateko programa dago, ekonomia-ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetan islatu dena.

Laguntza horiek urtero egiten den deialdi baten bidez esleitzen dira eta deialdiaren baldintzak betetzen dituzten hedabide guztiak, hala nahi izanez gero, aurkez daitezke.

2003. urtetik orain arte, hauek dira aurrekontuan sartu eta erabat bete diren zenbatekoak:

Urtea	Deialdia	Aurrekontuan sartutako zenbatekoa
2003	Hedabide sozialei euskara erabiltzeagatik emandako laguntzak.	309.642,20 euro
2004	Hedabide sozialei euskara erabiltzeagatik emandako laguntzak.	309.642,20 euro
2005	Hedabide sozialei euskara erabiltzeagatik emandako laguntzak.	250.000,00 euro
2006	Hedabide sozialei euskara erabiltzeagatik emandako laguntzak.	250.000,00 euro
GUZTIRA		1.119.284,40 euro

Aipatu deialdiaren bidez laguntzak honakoei ematen zaizkie: prentsari, aldizkakotasun desberdineko aldizkariei, irratiei, telebistei, prestakuntzari eta on-line komunikabideei.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Errege-

lamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, euskara normalizatuaren eta kaleko euskararen artean etenik gerta ez dadin Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskara normalizatuaren eta kaleko euskararen artean etenik gerta ez dadin Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den euskara normalizatuaren eta kaleko euskararen artean etenik gerta ez dadin. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

2004an dirulaguntzarako bi deialdi tramitatu ziren: lehenengoa, Nafarroarentzat interesa duten hizkuntza-ikerketetarako laguntzen deialdia; deialdi horren xedea zen Nafarroarentzat interesa duten hizkuntza eta soziolinguistikaren eremuko ikerketa proiektuak finantzatzen laguntzea, betiere proiektu horietan ikertzaile talde batzuek parte hartzen bazuten, ikertzaile nagusi baten edo ikerketa taldeko zuzendari baten zuzendaritzapean.

Euskal Herriko Unibertsitateko Iñaki Camino jaunak "Recogida y análisis de hablas navarras pasado y presente" izenburuko lana aurkeztu zuen. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Pablo Sotés Ruiz jaunak, berriz, "Actitudes y creencias del alumnado de la UPNA ante el bilingüismo y la educación bilingüe" izeneko ikerlana aurkeztu zuen.

Bigarren deialdia, Nafarroako ikertzaileei hizkuntza arloko ikerketa eta prestakuntzarako laguntza izan zen; helburua zen hizkuntza arloko banakako ikerketa proiektuak eta Nafarroako ikertzaileentzako hizkuntza-prestakuntza ikastaroak finantzatzea eta Hezkuntza Departamentuaren eskaintza instituzionaletik kanpoko prestakuntza-jardueretan hizkuntza arloko irakasleen parte-hartzea bultzatzea.

Iñaki Martínez Urmeneta jaunak "Seguimiento del alumnado con necesidades educativas especiales en modelos de inmersión lingüística" izeneko lana aurkeztu zuen, eta Orreaga Ibarra Murillo andreak "Erroibarko eta Esteribarko lexiko bilduma" lana aurkeztu zuen.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, euskararen presentzia mugaz gaindi ere areagotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskararen presentzia mugaz gaindi ere areagotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den euskararen presentzia mugaz gaindi ere areagotzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak euskara sustatu du gure mugetatik kanpo Europako hizkuntza azoka garrantzitsuenetan hizkuntza horren presentzia bultzatuz.

Nafarroako euskararen sustapena gure mugetatik kanpo bi neurri paraleloren bidez gauzatu da. Alde batetik, Europako arlo horretako bi ekitaldi garrantzitsuenetan parte-hartzea ziurtatuz; hain zuzen, Expolangues Paris eta Expolingua Berlin, urtero bi hiri horietan egiten direnak. Eta bestaldekik, presentzia hori komunitate bereizi bati dagokiona izan dadin ziurtatuz, aurreko ekitaldietan ez bezala.

Hala eta guztiz ere, ez dira ahazten Nafarroako euskarari buruz ematen eta zabaltzen den infor-

mazioaren hartzaileak izan litezkeenak, bisitatzen diren lekuetan bizi direnak.

Pariseko Expolangues azoka hasi baino lehen, Nafarroako Gobernuak azokan izan behar duen parte-hartzeari buruzko informazioa bidaltzen da Pariseko euskal etxeetara eta nafar etxeetara, eta erakustokia bisitatzeko gonbidapena egiten zaie.

Euskara ikastetxe eta unibertsitateetan zabaltzeari dagokionez, haiei ere, urtero, gonbidapena egiten zaie Nafarroako Gobernuaren erakustokira hurbil daitezen Nafarroako euskararekin zerikusia duen guztia erakusteko eta informazioa emateko; halaber, gonbidapena egiten zaie Nafarroako Gobernuak euskararen inguruan argitaratutako produktu berriak jasotzeko interesa duten guztiei.

Nafarroako Gobernuaren erakustokira hurbiltzen den eta euskarari buruzko informazio espezi-fikoaren bila datorren publikoa batez ere, unibertsitarioa da, hala irakasleak nola ikasleak, eta guztiei arreta eskaintzen zaie eta eskatutako materiala ematen zaie.

Horretaz gain, erakustokia bisitatu duen publikoak postaz edo posta elektronikoz material linguistiko eta soziolinguistikoa eskatzeko egindako eskari guztiei erantzuna ematen zaie.

Nabarmendu behar da, hala Parisen nola Berlinen, azoken kariatara, Nafarroako Euskararen Fonoteka aurkeztu zela euskararen linguistikan, filologian eta irakaskuntzan interesa duen publikoaren aurrean.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, euskararen erabilera familia harremanetan areagotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskararen erabilera familia harremanetan areagotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den euskararen familia bidezko transmisioa sustatzeko eta gazteen artean erabilera sendotzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak, udalekin eta toki entitateekin sinatutako lankidetzak hitzarmenaren bidez, urtero finantzatzen ditu hitzarmena sinatu dutenek aurkeztutako programa eta kanpainak.

Euskara sustatzeko kanpainak udal eta toki entitateentzat.

“Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek euskararen erabilera udal eremuan normalizatzeko sinatutako lankidetzak hitzarmena.” Hitzarmena sinatu duten toki entitateak eta geroztik gehitu direnak Nafarroako iparraldean daude, hau da, gehitu diren udalerrri eta mankomunitateak Tafalla-

tik iparraldera kokatuta daude. Nafarroako hizkuntza-eremuak kontuan hartuta, udal euskara zerbitzuak hiru eremuetan daude: euskaldunean, mistoan eta ez-euskaldunean.

Lankidetzarako aurreikusitako jarduerak sei ataletan banatuta daude, baina garrantzitsuenak dira euskara teknikarien kontratazioa; langileei buruzko politika garatzea eta planifikatzea; prestakuntza eta birziklatzea; eta, hirugarrena, kultur jardueren finantzaketa.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak lankidetzak hitzarmen bat sinatua dute, euskararen erabilera udal esparruan sustatzeko eta Europar Batasunean ofizialak diren hizkuntzei buruzko aholkularitza eta prestakuntza emateko.

Halaber, haurrek derrigorrezko hezkuntzan eta ondokoan euskara eta euskaraz ikas dezaten dagoen eskaintza zabala nabarmendu behar da.

Ez dira ahaztu behar Nafarroako Gobernuak familiaren esparruari begira egindako argitalpenak; horiek lotuta daude, batez ere, eskolako edukiekin eta euskararen erabilera eskolan eta eskolaz kanpoko jardueretan (euskarazko udalekuak, haur eta gazteentzako euskarazko literaturaren idazleekin topaketak, antzerki eta bertso lehiaketak, deklamazio-lehiaketak, eta abar) sustatzearekin.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, euskararen aldeko jarrera politiko eta soziala bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskararen aldeko jarrera politiko eta soziala bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin

den euskararen aldeko jarrera politiko eta soziala bultzatzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak hori lortzeko beharrezkoa den guztia egin du. Eta, jakina, gauza bera egin dute gobernua babesten duten bi alderdiek eta parlamentu-taldeek; asmoa izan da, hain zuzen ere, alderdi politiko bakar batek ere euskara helburu politikoetarako eta alderdikieriaz erabiltzerik izan ez dezan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, euskararen kalitatea bermatu eta gordetzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskararen kalitatea bermatu eta gordetzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den euskararen kalitatea bermatzeko eta gordetzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak beti sentsibiltate handia erakutsi du Nafarroako euskararen kalitatea bermatzeko eta gordetzeko. Horrela, Euskaltzaindiaren sortzailetako bat da eta sortu zenetik erakunde horri laguntza ekonomikoa eman dio; gainera, abenduaren 15eko Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 3. artikuluko 3. idatz-zatiaren arabera, "Hizkuntz arauen ezartze ondorioetarako, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku-emaile ofiziala, eta berari eskatuko dizkiote botere publikoek aurreko atalean ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak."

Ez da ahaztu behar Nafarroan euskalkiek garrantzi berezia dutela eta horiek babestea, bermatzea eta gordetzea Euskarari buruzko Foru Legean jasota dagoela; lan hori ere ahalegin handiz eta profesionaltasunez egiten ari da.

Nafarroako euskararen kalitatea gordetzera zuzenduta, honakoa egin da:

1. Euskaltzaindia, jardunaldiak: Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak sinatutako hitzar-

menean ezarritako beste lanetako bat da urtero hizkuntza arloko jardunaldiak egitea. Orain arte hiru edizio (2003an, 2004an eta 2005ean) egin dira eta hiruen balorazioa bikaina izan da.

2. UZEI: lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zen erakunde horrekin euskararen lexikoa gaurkotzera zuzendutako ikerketa sustatzeko asmoz. Hitzarmen bat Nafarroako Gobernuari terminologia eta antzeko gaiei buruzko aholkularitza emateko. Terminologia bankua eguneratzea. "Nafarroako fitoni-miari" buruzko lan bat digitalizatzea eta euskararen Corpusean sartzea.

3. Euskalkiei buruzko argitalpenak:

1. Nafarroako euskalkiei buruzko liburuxkak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzea.
2. Euskarak bizirik irauten duen Nafarroako eskualde batzuetako ahozko tradizioa jasotzen duten lanak argitaratzea.

- Malerreka solasean.
- Bortzirietan aditutakoak.
- Baztan solasean.

4. Fonoteka: Nafarroako euskalki desberdinei buruzko soinuak dokumentuak biltzea, gordetzea eta hedatzea. Ondoko erakusketa hauek egin dira:

1. Datu-base bat sortzea.
2. Datu-base hori mantentzea eta eguneratzea.
3. Grabazio berriak sartzea.
4. Prestakuntza-bekak emanez bildu diren datuak garbitzeko lanak.
5. Fonoteka aurkeztu eta ezagutzera ematea.
6. Soinu fondoak publikoaren eskura jartzea.
7. Nafarroako Euskararen Fonoteka jasotzen duen web orria diseinatzea, sortzea eta Interneten jartzea.
8. Aipatu web orriaren edukiak frantsesera, ingelesera eta euskarara itzultzea.
9. Programa horren inguruko beste proiektu batzuk aztertzea eta planifikatzea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, euskarazko kultur merkatua trinkotzeko, zabaltzeko eta normalizatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskarazko kultur merkatua trinkotzeko, zabaltzeko eta normalizatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den euskarazko kultur merkatua trinkotzeko, zabaltzeko eta normalizatzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

2003. urtearen erdialdetik, euskarazko kultur merkatua trinkotzeko, normalizatzeko eta zabaltzeko ondoko programak egin dira:

1. KULTUR EKITALDIETARAKO DEIALDIA

I. modalitatea: Udal eta kontzejuntzako euskararen arloko laguntza programak.

II. modalitatea: Euskarari buruzko programa eta kultur ekimenak. Euskarazko kultur ekitaldiak gauzatzeko programak laguntzeko deialdia.

2. MOZORRO BERRI

Nafarroako hainbat herritan eskainitako antzerki kanpaina; batez beste, 60 herritan antzeztan dira antzeztanak.

3. ZOKO ZINEA

Zinema herri txikietan; batez beste, 10 emanaldi eta horiei buruzko beste horrenbeste hizketaldi egin dira.

4. ERAKUSKETAK

Antolatu diren erakusketa guztiak Iruñean inauguratu dira eta ondoren, bi urtez, Nafarroako zenbait herritara eramaten dira.

a. "El siglo de la aviación/Hegazkintzaren mendea": Mendabia, Los Arcos, Bera, Zangoza, Burlata, Lekunberri, Castejón eta Altsasu.

b. "El mar, principio de vida/Itsasoa, biziaren jatorria": Lizarra, Tafalla, Elizondo, Antsoain eta Agoitz.

c. "El vascuence en Navarra: sus dialectos - Nafarroako euskalkiak". 2004ko abenduaren 30ean inauguratu zen eta Iruñeko Baluartan 2005eko urtarrilaren 27 arte egon zen. Geroztik, 2005ean eta 2006an Nafarroako zenbait herritara eraman zen.

5. ZE BERRI

Batez ere erdaldunei zuzendutako argitalpena da, euskarari eta Nafarroako kultura eta historia berrienari buruzko informazioa zabaltzea helburu duena.

6. Euskarazko literatura, ikus-entzunezkoak eta material informatikoa eskuratzea.

Urtero material literarioa, ikus-entzunezkoak eta material informatikoa erosten da Nafarroako ikastetxe eta liburutegietan banatzeko.

7. Argitalpenak:

Liburu ugari argitaratu ohi da; izan ere, liburuak euskarari buruzko gaiak hobeki zabaltzen dituzten bitartekoetako bat dira. 2003. urtearen erdialdetik, ondoko liburuak argitaratu dira:

1.- 2004. urtean: Zortzi lan argitaratu dira:

– Hagonafarrera, Iñaki Camino.

– Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara, Estibalitz Montoya.

– 2003ko Nafarroako euskararen azterketa soziolinguistikoa.

– Vascuence y Romance: Ebro-Garona, un espacio de comunicación. Zenbait egile.

– Etxearen lexikoaren CDa

– Malerrekako ahozko tradizioa

– Esnegintza

– Nafarroa Behereko herri izendegia, Patxi Salaberri

2.- 2005. urtean:

– Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma. Liburua eta DVDa.

– Esnea: Prozesua eta ohiturak. Liburua, CDa eta laminak.

– Baztango ahozko tradizioa.

3.- 2006. urtean: Euskaltzaindiarekin izenpetu zen hitzarmenean jasotako bi obrak argitaratzea:

– Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko, Andres Iñigorena.

– Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia, Pello Salabururena.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, hizkuntza politika kontuetan herri-aginteen arteko koordinazioa eta elkarlana sendotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du hizkuntza politika kontuetan herri-aginteen arteko koordinazioa eta elkarlana sendotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den aginte publikoen arteko koordinazioa eta elkarlana hobetzeko hizkuntz politika kontuetan. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Legegintzaldi honetan, Nafarroako Gobernuak indarrean mantendu du "Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek euskararen erabilera udal eremuan normalizatzeko sinatutako lankidetzaren hitzarmena." Horrela, azken hiru urteetan handitu egin da hitzarmen horri atxiki zaizkion udal eta toki entitateen kopurua.

Hitzarmena sinatu duten toki entitateak eta geroztik gehitu zaizkionak Nafarroako iparraldean daude, hau da, gehitu zizkion udalerrri eta mankomunitateak Tafallatik iparraldera kokatuta daude. Nafarroako hizkuntza-eremuak kontuan hartuta, udal euskara zerbitzuak hiru eremuetan daude: euskaldunean, mistoan eta ez-euskaldunean.

Lankidetzarako aurreikusitako jarduerak sei ataletan banatuta daude, baina garrantzitsuenak dira euskara teknikarien kontratazioa; langileei buruzko politika garatzea eta planifikatzea; prestakuntza eta birziklatzea; eta hirugarrena, kultur jardueren finantzaketa.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak, euskararen erabilera udal esparruan sustatzeko eta Europar Batasunean ofizialak diren hizkuntzei buruzko aholkularitza eta prestakuntza emateko, lankidetzaren hitzarmen bat sinatua dute.

Azken urtean bilerak egin dira hitzarmena sinatu dutenekin gaur egun indarrean dagoena ordezkatzeko duen hitzarmen berria bilatzeko; xedea da aurreikusitako helburuak eta jarduerak hobetzea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Espainian eta nazioartean hizkuntza gutxituen sustapen-politikan ari diren erakundeekin harremana sendotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Espainian eta nazioartean hizkuntza gutxituen sustapen-politikan ari diren erakundeekin harremana sendotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den Espainian eta nazioartean hizkuntza gutxituen sustapen-politikan ari diren erakundeekin harremanak sendotzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak harremanak izaten ditu parte hartzen duen Europako hizkuntz azoketan; horretaz gain, eremu urriko hizkuntzei buruzko biltzar eta foroetan harremanak izaten ditu Galiziako, Euskadiko, Kataluniako, Balearretako eta Valentziako autonomia erkidegoetako hizkuntz politikako zuzendaritza nagusiekin eta kontseilariordetzekin; gainera, hizkuntz politika arloko edo erkidego horietan gaztelaniarekin batera ofizialak diren hizkuntzei buruzko materialak elkar trukutzen dituzte.

Nafarroako Gobernuak euskararen arloan argitaratzen dituen azken materialak Cervantes Institutuaren Pariseko eta Berlingo egoitzetara aldizka bidaltzen dira. Egoitza horietan Nafarroako Euskararen Fonotekaren aurkezpena ere jaso zuten, 2005 eta 2006ko argitalpenetan.

Halaber, Nafarroako Gobernuak harremanak izaten ditu Europar Batasuneko hizkuntzei lotutako eta Europako Kontseiluko eremu urriko hizkuntzei lotutako nazioz gaindiko erakundeekin.

Nafarroako Gobernuak Mercator Sareko Hezkuntza, Legegintza eta Hedabide adarretatik, eta Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegotik informazio zehatza jasotzen du aldizka.

Nafarroako Gobernuak hirutan hartu du parte Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko Nazioarteko Biltzarrean:

- Santiago (Espainia), 2001
- Kiruna (Suedia), 2003
- Trieste (Italia), 2005

Nafarroako Gobernuak, nazioartean eremu urriko hizkuntzen arloan antolatzen diren kalitatezko eta funtsezko ekitaldi guztietara joateko gonbidapena jasotzen du eta parte hartu ohi du.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, gune euskaldunetan euskararen etorkizuna bermatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du gune euskaldunetan euskararen etorkizuna bermatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den gune euskaldunetan euskararen etorkizuna bermatzeko neurriak garatzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5.1 artikuluan honako hizkuntza eremuak agertzen dira:

a) Eremu euskalduna, ondoko udalerriek osatua: Abaurregaina, Abaurrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arantza, Arano, Arakil, Arbizu, Areso, Aria, Aribere, Arruazu, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Bertizarana, Betelu, Auritz, ziordia, Donamaria, Etxalar, Etxarri Aranatz, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Erro, Esteribar, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Uharte-Arakil, Imotz, Irañeta, Ituren, Iturmendi, Labaien, Lakuntza, Lantz, Larraun, Leitza, Lesaka, Oitz, Olazti, Orbaizeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Doneztebe, Sunbilla, Ultzama, Urdazubi, Urdiain, Urrotz, Luzaide, Bera, Hiriberri, Igantzi, Zubieta eta Zugarramurdi.

b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abartzuza, Antsoain, Agoitz, Aranguren, Artze, Atetz, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidaurreta, Burgi, Ziriza, Zizur, Etxarri, Etxauri, Eguesibar, Ezkaroze, Espartza, Lizarra, Ezkabarte, Galar, Garde, Goñi, Gorza, Gesalatz, Uharte, Izaba, Itza, Itzaltzu, Jaurrieta, Txulapain, Lezaun, Lizoain, Noain-Elortzibar, Otsagabia, Odieta, Olabar, Oltza, Olo, Orkoiain, Orontze, Orotz-Betelu, Iruña, Gares, Erronkari, Jaitz, Sartze, Urzainki, Uztarroze, Bidankoze, Atarrabia, Deierrri, Zabaltza eta Zizur Nagusia."

c) Eremu ez-euskalduna, gainerako udalerriek osatua.

Artikulu horren arabera, eremu euskaldun bat eratzen da, eta eremu horretan euskara ofiziala izanen da gaztelaniarekin batera. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak lankidetzaren hitzarmen bat dauka eremu horretako eta eremu mistoko udal eta toki entitateekin, baita eremu ez-euskaldunetan dauden eta hala eskatu dutenekin ere.

Administrazioan hitzarmenak honelako izena du: "Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek euskararen erabilera udal eremuan normalizatzeko sinatutako lankidetzaren hitzarmena". Hitzarmena sinatu duten toki entitateak eta geroztik gehitu direnak Nafarroako iparraldean daude, hau da, gehitu diren udalerririk eta mankomunitateak Tafallatik iparraldera kokatuta daude. Nafarroako hizkuntza-eremuak kontuan hartuta, udal euskara zerbitzuak hiru eremuetan daude: euskaldunetan, mistoan eta ez-euskaldunetan.

Lankidetzarako aurreikusitako jarduerak sei ataletan banatuta daude, baina garrantzitsuenak dira euskara teknikarien kontratazioa; langileei buruzko politika garatzea eta planifikatzea; prestakuntza eta birziklatzea; eta hirugarrena, kultur jardueren finantzaketa. Baita adosten diren beste guztiak ere. Urtero, udal eta toki entitate horiek antolatzen dituzten euskara sustatzeko kanpainak finantzatzen dira.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak, euskararen erabilera udal esparruan sustatzeko eta Europar Batasunean ofizialak diren hizkuntzei buruzko aholkularitza eta prestakuntza emateko, lankidetzaren hitzarmen bat sinatua dute.

Euskarak Nafarroako eremu euskaldunetan bizirik iraun dezan bermatzeak biztanleen bizitzako alderdi guztiak, ahal den neurrian, hizkuntza horretan garatzea eskatzen du. Bizitza sozialaren alderdi garrantzitsu bat hedabideak dira eta horiek norberaren ama hizkuntzan egotea. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak euskara erabiltzen duten hedabide sozialei laguntza emateko deialdi bat ezarrita du; horrela, prentsa, irrati, telebista eta Interneten euskararen presentzia bermatzen da.

Urtero dirulaguntzak ematen zaizkie euskara erabiltzen duten euskarazko hedabideei.

2003. urtean

	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntzak, guztira
Karrape	31.954,24	7.543,90
Aralar	25.657,33	9.751,87
Beleixe	28.345,30	8.463,89
Esan-Erran	40.644,49	8.463,89
Xorroxin	158.834,53	12.327,84
Euskalerrria Irratia	240.000,00	10.487,86
Euskarazko telebistak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntzak, guztira
Xaloe	141.000,00	27.493,74
Ttipi Ttapa.	146.072,61	29.545,51
Euskarazko aldizkariak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntzak, guztira
Ttipi Ttapa.	208.148,33	18.658,05
Guaixe	115.470,81	13.514,48
Marmari	2.844,00	1.990,80
Pulunpe	6.996,60	4.897,62
Mailope	16.821,00	9.076,89
Axular	21.827,59	8.976,04
Xuka	2.602,00	1.821,40
Lurra	5.796,64	4.057,65
Karrikiri	17.018,00	6.958,95
Laisterkan	4.885,00	3.419,50
Gu Geu	4.885,00	3.419,50
Nabarra	180.319,29	14.523,03
Oixe	62.688,47	11.194,83
The balde	45.930,00	10.690,56
Xapo	1.256,00	879,20
Gaztelaniazko irratiak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntzak, guztira
Navarra de Radio	35.498,22	3.055,69
Gaztelaniazko egunkariak eta aldizkariak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntzak, guztira
Ibailde	13.987,62	1.487,32
Aldapa	12.548,88	1.487,32
Txantrea-Auzolan	12.813,84	1.487,32
Orbela	6.640,34	1.189,86
La Merindad	886,78	620,75
E.G.N.	1.234,44	864,11
La Verdad	31.419,00	6.011,06
Zeroa Multimedia	147.493,83	11.106,36
Diario de Navarra	42.997,80	13.505,19
Mendixut	7.118,87	4.983,21
Euskarazko telebistak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntzak, guztira
Canal 6	6.643,00	4.650,10
Canal 4	216.074,00	9.657,87

2004. urtean:

Euskarazko komunikabideak:

Idatzizko komunikabideak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Sakanako Plangintza Orokorreko Mankomunitatea. Laisterkan	6.791,20	4.753,84
Sakanako Plangintza Orokorreko Mankomunitatea Gu Geu	7.220,51	5.054,36
Axular Kultur Elkartea Axular	23.476,06	6.434,00
Karrikaluze Elkartea Xuka	3.841,00	2.688,70
Lurra Kultur Elkartea Lurra	5.834,00	4.083,80
Karrikiri Elkartea Karrika aldizkaria	18.864,12	4.227,90
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea Pulunpe	13.718,00	5.278,81
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea Marmari aldizkaria	3.030,00	2.121,00
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea Mailope	28.000,00	5.496,59
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea Xapo aldizkariak	1.484,11	1.038,88
Bierrik Elkartea Guaixe	189.497,84	9.316,87
Aldizkari S.L. Nabarra	185.932,47	16.169,37
Komunikazioa Eragin S.L. The Balde aldizkaria	53.943,00	8.926,64
Ttipi-Ttapa Fundazioa Ttipi-Ttapa	237.418,48	19.014,95
Guztira	779.050,79	94.605,71
Telebistak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Ttipi-Ttapa telebista	139.475,00	24.249,95
Xaloa telebista	148.000,00	23.372,99
Guztira	287.475,00	47.622,94
On-line komunikabideak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Axular Kultur Elkartea Axular	599,39	419,57
Karrikaluze Elkartea Xuka	315,15	220,61
Guztira	914,54	640,18
Irratiak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Lekunberriko Udala Aralar irratia	26.940,20	18.858,14
Etxarri Aranazko udala Beleixe irratia	85.024,56	17.812,60
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea Karrape irratia		16.929,33
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea Esan-Erran irratia	43.472,00	18.990,29
Baztango Udala Xorroxin irratia	164.575,65	22.655,52
Guztira	352.532,57	95.245,88

2005. urtean:

Euskarazko komunikabideak:

Idatzizko komunikabideak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Sakanako Plangintza Orokorreko Mankomunitatea Laisterkan	16.012,00	4.378,52
Sakanako Plangintza Orokorreko Mankomunitatea Gu Geu	15.344,00	4.307,90
Axular Kultur Elkartea Axular	23.910,00	6.408,88
Karrikaluze Elkartea Xuka	6.340,00	3.124,99
Lurra Kultur Elkartea Lurra	5.834,00	3.937,14
Karrikiri Elkartea Karrika aldizkaria	23.371,00	4.219,62
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea Pulunpe	15.240,00	7.627,10
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea Marmari aldizkaria	3.150,00	2.205,00
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea Mailope	29.400,00	6.108,74
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea Xapo aldizkariak	1.542,00	1.079,48
Bierrik Elkartea Guaixe	195.863,00	11.069,89
Aldizkari S.L. Nabarra	211.975,00	12.447,26
Ttipi-Ttapa Fundazioa Ttipi-Ttapa	186.077,00	15.854,48
Guztira	734.058,00	82.769,00
Telebistak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Xaloe Kultur Elkartea Xaloe telebista	162.000,00	18.023,89
Ttipi-Ttapa Fundazioa Ttipi-Ttapa telebista	111.400,00	20.332,11
Guztira	273.400,00	38.356,00
On-line komunikabideak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Axular Kultur Elkartea Axular on-line	560,00	392,00
Ttipi-Ttapa Fundazioa Ttipi-Ttapa on-line	13.000,00	5.719,15
Karrikaluze Elkartea Xuka on-line	2.806,00	1.963,85
Guztira	16.366,00	8.075,00
Irratiak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Lekunberriko Udala Aralar irratia	27.700,00	13.112,61
Etxarri Aranazko udala Beleixe irradia	85.249,00	14.057,17
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea Karrape irratia	34.012,00	12.668,12
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea Esan-Erran irratia	45.925,00	12.779,24
Baztango Udala Xorroxin irratia	223.811,00	20.057,86
Guztira	446.697,00	72.675,00

2006. urtean:

Euskarazko komunikabideak:

Idatzizko komunikabideak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Sakanako Plangintza Orokorreko Mankomunitatea Laisterkan	16.589,00	3.911,06
Sakanako Plangintza Orokorreko Mankomunitatea Gu Geu	15.900,00	3.251,89
Axular Kultur Elkartea Axular	24.130,00	4.394,45
Karrikaluze Elkartea Xuka	11.180,00	3.867,11
Lurra Kultur Elkartea Lurra	7.834,00	4.592,20
Karrikiri Elkartea Karrika aldizkaria	26.502,00	3.471,00
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko mankomunitatea Pulunpe	17.700,00	5.361,00
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko mankomunitatea Marmari aldizkaria	3.360,00	1.680,00
Mailope Kultur Elkartea Mailope	32.354,00	5.646,00
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko mankomunitatea Xapo aldizkariak	1.592,00	796,06
Bierrik Elkartea Guaixe	178.649,00	12.282,48
Aldizkari S.L. Nabarra	211.661,00	10.041,31
Ttipi-Ttapa Fundazioa Ttipi-Ttapa	161.300,00	13.644,75
Kebenko Kultur Elkartea Ekialde	8.756,00	4.460,36
Komunikazioa Eragin S.L.L. The Balde	31.900,00	1.832,92
Eurocampus kultur elkartea Gazteberri	83.040,00	5.361,22
Guztira	749.407,15	84.595,00
Telebistak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Xaloe Kultur Elkartea Xaloe telebista	226.000,00	15.824,01
Ttipi-Ttapa Fundazioa Ttipi-Ttapa telebista	273.921,00	16.134,29
Guztira	499.921,00	31.958,00
On-line komunikabideak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Axular Kultur Elkartea Axular on-line	560,00	392,00
Ttipi-Ttapa Fundazioa Ttipi-Ttapa on-line	19.800,00	2.687,52
Karrikaluze Elkartea Xuka on-line	3.577,00	1.221,60
Xorroxin Elkartea Xorroxin on-line	29.355,00	2.198,88
Guztira		

Irratiak	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Lekunberriko Udala		
Aralar irratia	30.160,00	10.809,43
Etxarri Aranazko udala		
Beleixe irratia	93.084,00	12.219,35
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko mankomunitatea		
Karrape irratia	40.050,00	9.634,49
Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko mankomunitatea		
Esan-Erran irratia	42.701,00	10.456,94
Xorroxin Elkarte		
Xorroxin irratia	228.630,00	20.796,39
Guztira	499.921,00	63.916,60
Kazetariontzako prestakuntza.	Onarturiko aurrekontua	Dirulaguntza
Xorroxin Elkarte		
Xorroxin irratia	2.010,00	2.010,00
Guztira	2.010,00	2.010,00

Hedabide sozialei euskara erabiltzeagatik ematen zaizkien laguntzak bezala, euskarazko liburuak argitaratzeak ere hizkuntza horren presentzia bermatzen eta, hizkuntza zabaltzeaz gain prestigioa ematen dio.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, hizkuntza politika Nafarroako Gobernuaren baitan zehar-lerrotzat hartzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du hizkuntza politika Nafarroako Gobernuaren baitan zehar-lerrotzat hartzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin

den hizkuntza politika Nafarroako Gobernuaren baitan zehar-lerrotzat hartzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 29/2003 Foru Dekretuaren bidez, gobernu departamentuetan euskararen erabilerari buruzko oinarriak ezarri zituen; oinarri horiek Nafarroako Gobernuko administrazio publikoaren baitan euskararen erabilerari buruzko jarraibideak eta arauak zehazten dituzte.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, hizkuntza politikaren arloan hausnarketa eta debatea bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du hizkuntza politikaren arloan hausnarketa eta debatea bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den orain arte hizkuntz politikaren arloan hausnarketa eta eztabaida bultzatzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Eztabaida eta hausnarketa hizkuntz politikaren arloan, Nafarroako Parlamentuan 2004 eta 2005 urteetan gauzatutako hizkuntz politikari buruzko ponentziaren bidez bultzatu da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan sedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, herritarrek hizkuntzarekiko duten atxikimendua sendotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du herritarrek hizkuntzarekiko duten atxikimendua sendotzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den herritarrek hizkuntzarekiko duten atxikimendua sendotzeko, gizarte-ekimeneko organismoak indartzeko eta beren ekarria bideratzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Herritarrek hizkuntzarekiko duten atxikimendua sendotzen da, neurri batean, euskara eguneroko bizimoduko tresna gisa aurkeztuz; hori egitea da Nafarroako Gobernuak planifikatutako kultur jardueren bidez lortu nahi duen helburuetako bat.

Ondoko jarduera hauek egin dira:

1. MOZORRO BERRI

Nafarroako hainbat herritan eskainitako antzerki kanpaina.

2. ZOKO ZINEA

Zinema herri txikietan.

3. ERAKUSKETAK

Erakusketa ibiltariak dira eta Nafarroako zenbait herritan paratzen dira.

a. "El siglo de la aviación/Hegazkintzaren men-dea": Mendabia, Los Arcos, Bera, Zangoza, Burlata, Lekunberri, Castejón eta Altsasu.

b. "El mar, principio de vida/ltsasoa, biziaren jatorria": Lizarra, Tafalla, Elizondo, Antsoain eta Agoitz.

c. "El vascuence en Navarra: sus dialectos - Nafarroako euskalkiak": 2004ko abenduaren 30ean inauguratu zen eta Iruñeko Baluartan 2005eko urtarrilaren 27 arte egon zen. Geroztik, 2005ean eta 2006an Nafarroako zenbait herritara eraman zen.

4. UDALEN SUSTAPEN-KANPAINAK.

"Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek euskararen erabilera udal eremuan normalizatzeko sinatutako lankidetzaren hitzarmena". Hitzarmena sinatu duten toki entitateak eta geroztik gehitu direnak Nafarroako iparraldean daude, hau da, gehitu diren udalerrri eta mankomunitateak Tafallatik iparraldera kokatuta daude. Nafarroako hizkuntza-eremuak kontuan hartuta, udal euskara zerbitzuak hiru eremuetan daude: euskaldunean, mistoan eta ez-euskaldunean.

Lankidetzarako aurreikusitako jarduerak sei ataletan banatuta daude, baina garrantzitsuenak dira euskara teknikarien kontratazioa; langileei buruzko politika garatzea eta planifikatzea: prestakuntza eta birziklatzea; eta hirugarrena, kultur jardueren finantzaketa.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak, euskararen erabilera udal esparruan sustatzeko eta Europar Batasunean ofizialak diren hizkuntzei buruzko aholkularitza eta prestakuntza emateko, lankidetzaren hitzarmen bat sinatua dute.

Azaldutako gaietako bati buruz, euskara garatzeari dagokionez hain zuzen ere, esan behar da Nafarroako udal eta toki entitateekiko lankidetzaren hitzarmenari atxikitako erakundeetako ordezkariekin, aldizka, bilerak egiten direla; izan ere, horiek eremu euskalduneko eta mistoko biztanleak eta eremu ez-euskalduneko bizilagun batzuk ordezkatzeko dituzte. Bilera horietan ordezkari horiek egindako ekarpenak jasotzen dira eta urteko jarduketaren programetan agertzen dira.

Gainera, beste lankidetzaren hitzarmen bat egite aldera ordezkari horiekin izandako elkarrizketak foro egokiak dira euskararen garapenari buruzko proposamenak eztabaidatzeko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, teknologia berrietan euskarazko baliabideak, tresnak eta aplikazio berriak garatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du teknologia berrietan euskarazko baliabideak, tresnak eta aplikazio berriak garatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer egin den teknologia berrien arloan euskarazko baliabideak, tresnak eta aplikazio berriak garatzeko. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Legegintzaldi honetan, Nafarroako Gobernuak nabarmen handitu du euskararen presentzia Interneten, ez bakarrik eduki instituzionalak aurkezten, baita albisteak eta edukiak era digitalean emateko Internet erabiltzen duten Nafarroako hedabide sozialen proiektu guztiak babestuz ere.

Hori dela-eta, euskarazko eduki digital instituzional ugari edo hizkuntzarekin lotutako gaiak ondo web guneetan kontsulta daitezke:

Hezkuntza Departamentua

<http://www.pnte.cfnavarra.es/>

Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa

<http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/index.htm>

Zubiarte Euskaltegia

<http://www.pnte.cfnavarra.es/zubiarte/>

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia:

<http://www.pnte.cfnavarra.es/dgupl>

Nafarroako euskararen fonoteka:

www.fonoteka.com

Nafarroako toponimia:

<http://toponimianavarra.tracasa.es>

Nafarroako Gobernuaren ataria; aldatzen ari da atarian agertzen den informazioa gaztelaniaz eta euskaraz gain ingelesez eta frantsesez ere kontsultatu ahal izateko.

<http://www.navarra.es/>

Nafarroako Aldizkari Ofiziala:

<http://www.cfnavarra.es/bon/>

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua

<http://www.inapidiomas.net/newspage.php?module=news&link=nnvav&page=214&t=480>

Horretaz gain, ondoko argitalpen hauek egin dira:

1. Espainiako zenbait autonomia erkidegoko hizkuntz arloko legegintza: CD-ROM batez lagunduta.

2. Etxearen lexikoa Nafarroako euskalkietan: CD-Rom.

3. Bortzirietan Aditutakoak: DVD eta bideoekin.

4. Malerreka solasean: DVD eta bideoekin.

5. Nafarroako Euskalkiak: DVD batez lagunduta, erakusketan agertzen den informazio grafiko guztiarekin eta formatu digitalean.

6. Baztan solasean: liburua egiten ari da, eta DVD batekin aterako da.

7. Fonoteka erabiltzeko gida. CD-Roma.

8. Nafarroako fitonimiari buruzko informazioa bilatzeko sistema informatikoa duen CD-Rom bat egiten ari da.

Azken urteetan euskarazko eta euskarari buruzko material informatikoa eskuratu da Nafarroako liburutegien sarean eta ikastetxeetan banatzeko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, bilakaera soziolinguistikoaren berri izateko ikerlanak bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du bilakaera soziolinguistikoaren berri izateko ikerlanak bultzatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du bilakaera soziolinguistikoaren berri izateko ikerlanei buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Legegintzaldi honetan, Nafarroako Gobernuak euskarari buruzko bi azterlan soziolinguistiko egin

ditu eta, euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/86 Foru Legeko 5.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuari azterlan horien berri eman dio:

1. 2003an: "2003ko Nafarroako euskararen azterketa soziolinguistikoa. Hizkuntz gaitasuna, erabilera eta jarrerak", 2004ko ekainaren 3an Nafarroako Parlamentura bidali zen eta Hezkuntza kontseilariak, 2004ko urriaren 28an, Hezkuntza Batzordean aurkeztu zuen.

2. 2006an: "Iruñerriari buruzko 2006ko azterlan soziolinguistikoa." 2006ko urriaren 3an Nafarroako Parlamentura bidali zen eta Hezkuntza kontseilariak, 2006ko urriaren 10ean, Hezkuntza Batzordean aurkeztu zuen.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria. Luis Campoy Zueco

Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Iruña-Jaka autobideko Ledea aldeko behin betiko trazaduraren inguruan egindako proposamenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Iruña-Jaka autobideko Ledea aldeko behin betiko trazaduraren inguruan egindako proposamenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 10eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentuko taldeak galdera bat egin du Pirinioetako A-21 autobiak Ledeatik iragatean izanen duen behin betiko trazadurari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Galdera:

Zein da Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren proposamena Iruña-Jaka autobiak Ledea udalerritik iragatean izanen duen behin betiko trazadurari dagokionez?

Erantzuna:

Pirinioetako A-21 autobiak Ledeatik iragatean izanen duen behin betiko trazadura egin baino lehen herri horretako udalarekin adostu behar da, toki entitate horren planteamenduen eta autobia berriko proiektuaren interes orokorrari dagozkion arteko oreka bilatuz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 22an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko aireko garraioetako publizitate instituzionalari.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko aireko garraioetako publizitate instituzionalari.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 24ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du aireko garraioetako publizitate instituzionalari buruz. Hona hemen Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna:

Joan den azaroaren 7an, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak agerraldia egin zuen dagokion parlamentu-batzordean 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko proiektua zehaztasunez azaltzeko.

Edonola ere, Nafarroako Gobernuaren iritziz, Parlamentuan aurrekontuei buruzko eztabaida oraindik zabalik dagoenez, egokiena da galdegileak interesatzen zaion gaiari buruzko galdera egi-tea aipatu foru lege proiektua eztabaidatzeko bilkuretan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroan

Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Erronkari ibarrean mediku titular bakarra dagoen jakiteko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Erronkari ibarrean mediku titular bakarra dagoen jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeari atxikitako José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Erronkari ibarrean mediku titular bakarra ote dagoen jakiteko. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Izabako Osasun Eskualde Oinarrizkoko oinarrizko osasun laguntzaren taldean plantillako hiru mediku eta laguntzako bi mediku daude; mediku horiek aipatu osasun eskualde oinarrizkoa osatzen duten 8 udalerritan osasun txartela duten 1.094 pertsona artatzen dituzte (martxoaren 22ko 72/1990 Foru Dekretua).

Joan den urriaren 16an oinarrizko osasun laguntzako medikuen lekualdatze lehiaketa amaitu zen, eta medikuek hautatutako lanpostuak hartu dituzte. Izabako Osasun Eskualde Oinarrizkoko oinarrizko osasun laguntzako bi medikuk eskatu zuten lekualdatzea. Lekualdatze lehiaketa amaitzeko data baino lehen, Oinarrizko Osasun Laguntzaren Zuzendaritzako Langileria Zerbitzuak hutsik geldituko ziren lanpostuak betetze aldera familia medikuak kontratatzeke prozesua hasi zuen; lan horren emaitza, osasun eskualde oinarrizko zehatz horretan, bi familia mediku kontratatzea izan zen; mediku hauek lanean hasi ziren azaroaren 2an Izaban eta Uztarrozen eta azaroaren 6an Burgin, Bidankozen eta Gazteluberrin.

Bi mediku berriak lanean hasi bitartean, behin-behineko medikuak eta laguntzako bi medikuek hala programaturiko laguntza nola larrialdiak ederki artatu zituzten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 22an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, 52225 541006 2500 3111108 kontusailaren betetze mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Elena Torres Miranda andre-
ak galdera egin du 52225 541006 2500 3111108
kontusailaren betetze mailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artiku-
luan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,
Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlametu-
ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.
Galdera 2006ko azaroaren 6ko 93. Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parla-
mentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres

Miranda andre-
ak galdera egin du 52225 541006
2500 3111108 kontusailaren betetze mailari buruz.
Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun arte, aurrekontu bateratuak
2.000.000 milioi euro egiten ditu eta ez da bai-
mendu edo erabili inolako zenbatekorik; beraz,
bere osotasunean bete gabe dago.

Orain arte, ez da inolako zenbatekorik bete
edo ordaindu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlametu-
ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-
goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 23an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	45,15 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,18 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,34 »